12. Proiektu teknikoa eraikuntza berriko obrak egiteko, jadanik badiren eraikinak handitzeko edo eraikuntzen segurtasunean, egituran, barne antolamenduan edo kanpoko itxuran eragiten duten eraberritze lanetarako bakarrik beharko da. Era berean, aipatu proiektua beharrezkoa izango da xedapenen batek obra jakin bat burutzeko hala exijitzen duenean.

13. Obretarako lizentziak lortzeko beharrezko diren proiektu teknikoek memoria, planoak eta aurrekontua barne hartu beharko dituzte gutxienez, eta ondoko betekizunak konplitu:

13.1. Memorian obraren xedea aurkeztuko da eta, «Hirigintza Justifikazioa» izeneko atalean hirigintza legeria, Hiri Antolaketako Arauak, Arau Osagarriak, Alorreko Plana, Plan Berezia edota Xehetasunezko Azterketa beteko direla adieraziko da, aipatu justifikaziorako beharrezko diren hirigintza datu guztiak berariaz aipatuz.

Memoriak, «Hirigintza Justifikazioa» atalean, planoetan adierazitako solairu bakoitzaren azalera koadroen laburpena jasoko du, Arau hauen irizpideen arabera kalkulaturik.

Hasierako lurzatiaren guztizko azalera, osotasun gisa eraikuntzari lotuta geratzeko den lurzati eta erabilera eta jabari publikora pasako dena ere adieraziko dira.

Memoriak, era berean, hautatutako eraikuntza sistema, materialen giltzarri eta motak eta proiektatzen ari den obra eta, tasak nahiz lizentzia eskubideak finkatze aldera, eraikinaren kategoria behar bezala azaltzeko beharrezko diren xehetasun guztiak adieraziko ditu.

5. Se considerará Obra de Ampliación, aquellas que supongan aumento de superficie de proyección en planta de las líneas perimetrales del edificio, o aumento de su superficie útil por construcción de nuevos forjados.

6. Se considerará Obra de Reforma, aquella consistente en la modificación o sustitución de elementos estructurales de edificios o instalaciones, así como de la configuración esencial de los mismos, ya sea exterior o interior, siempre que no suponga ampliación en el sentido indicado en el apartado anterior.

7. Se considerará Obra de Consolidación, aquella en que la sustitución de elementos estructurales de edificios o instalaciones se deba al deterioro de los mismos y tenga finalidad, al margen de la intencionalidad declarada por el interesado, el aumento del periodo de vida normal de las construcciones, mediante la introducción de medidas de estabilidad y seguridad.

8. Se considerará Obra de Mejora, Conservación y Ornato aquellas obras, no incluidas en el apartado anterior, que tengan por objeto mejorar las condiciones de seguridad, salubridad y ornato, o las de habitabilidad o utilización de las construcciones. En ningún caso podrán afectar a elementos estructurales de las mismas, y cuando afecten a sus fachadas principales o secundarias, no podrán producir modificaciones de su configuración o diseño. Estas obras tendrán la consideración de obras menores.

9. Se considerará Obra de Demolición aquellas que tengan por objeto el derribo total o parcial de algún edificio o instalación. En todo caso tendrán la consideración de obras mayores.

10. Las obras de nueva planta, de ampliación, de reforma y de consolidación, tendrán la consideración de obras mayores.

11. Las solicitudes de licencia para la realización de obras de cualquier clase deberán ir acompañadas de dos ejemplares del proyecto técnico, redactado por facultativo competente y visado por el Colegio o Asociación Profesional a que pertenezca, donde se describirá, con precisión y exactitud, la obra en cuestión.

12. Solamente será preciso proyecto técnico para obras de nueva planta, ampliación de edificios ya existentes o reformas que afecten a la seguridad, estructura, distribución interior o aspecto exterior de las construcciones. Igualmente, será preciso dicho proyecto cuando alguna disposición lo exija para la realización de una obra concreta.

13. Los proyectos técnicos precisos para la obtención de licencias de obras se compondrán, como mínimo, de memoria, planos y presupuesto, y deberán cumplir los requisitos siguientes:

13.1. En la Memoria, se expondrá la finalidad de la obra y se indicará en el apartado denominado «Justificación Urbanística», el cumplimiento de la legalidad urbanística, Normas Subsidiarias, Normas Complementarias, Plan Parcial, Plan Especial o Estudio de Detalle, en su caso, con la indicación expresa de todos los datos urbanísticos precisos para cumplir tal justificación.

La Memoria, en su apartado «Justificación Urbanística», llevará un resumen de los cuadros de superficie de cada una de las plantas indicadas en los planos, calculada conforme a los criterios de mención de las presentes Normas.

Se indicará también la superficie total de la parcela inicial, la parcela que quedará afectada como un todo a la edificación y la que pasará al uso y dominio público.

La memoria deberá indicar, asimismo, el sistema constructivo adoptado, las claves y tipos de materiales y cuantos pormenores sean necesarios para dejar bien expresada la obra que se proyecta y la categoría de la edificación a efectos de aplicar las tasa o derechos de licencia.

13.2. Eraikuntza edo instalazio proiektuko planoek argi eta garbi irakurgarriak behar dute izan, eta gutxienez honakoak barne hartu beharko dituzte:

a) Kokapen planoak, 1:2.000 edo 1:1.000 eskalara Udalaren plano ofizialean, edo 1:5.000 eskalara Foru Aldundiaren planoan.

Lurzatiaren eta beheko solairuko eraikuntzaren mugak adieraziko dira. Onartutako Plan Berezi, Xehetasuneko Azterketa edo Alorreko Planik badago, berau aipatu espedienteen plano ofizialetan aurkeztu eta oinarrizko plano topografikoan eta lurzoruaren zonakatze edo erabilera planoan adieraziko da.

Kartografia ofizial berria badago aurrekoak baino zehatzagoa dena, proiektuaren dokumentazioan jaso egin beharko da, eta aipatu dokumentazioa eskatzen duenari emateko obligazioa izango du Udalak, eskatzaileak finkatzen diren tasak ordaindu ondoren.

b) Lurzatiaren planoak eraikinaren kokaguneaz, lurzati, bide, berdegune eta abarren neurri eta tarteez behar bezala akotatuta. Nolanahi ere, aipatu lurzatiaren planoak Plan Berezi, Alorreko Plan edo Xehetasuneko Azterketarako oinarri izandako plano topografiko eta lurzatiakoei jarraituz aurkeztuko da, honakoak adieraziz: Lurzatiaren mugak, neurriak eta azalera osoa, eta beheko solairuko eraikinaren eta pisuen mugetarako, inguruko eraikinetarako eta beste edozein hirigintza elementurako —bideak, berdeguneak eta abar— tartearak. Gutxieneko eskala, 1:250. Plano honek beti ere Udalaren ofizialari jarraituko dio eta altimetria bera izango du. Horretarako, eraikinaren proiektzioak marraztuko dira horiek desberdinak diren solairu guztietan, bestelako lerro trazaduraz eta solairu bakoitzari dagokiona zehaztuz, eraikina bera nahiz aipatu erreferentzie-kiko tartearak akotatuz.

c) Jatorrizko lurzatiaren planoak, eraikinari edo eraikinei esleituko zaizkien lurzatiak edo lurzatiak osotasun zatietan gisa, eta erabilera eta jabari publikorako doako lagapen lurzatiak, bere neurri nagusiak eta azalaren taula akotatuz eta azalera bakoitzaren etorkizunerako zaintza erregimena adieraziz.

d) Saneamendu horizontala, eraikinaren ur hornidura eta zimendatzea irudikatuko duten oinplanoren planoak, gutxienez 1:100 eskalara, honakoak adieraziz: Kontagailuen gelak, hartu-neak, hustubide hodiak, diametroak, kutxetak, udal sarerako junturen egoera, eta baita putzu beltzaren xehetasuna ere, gutxienez 1:25 eskalara, hiritartze proiektuen araudiari jarraituz. Plano horiek eraikinaren ingurune hiritartze proiektu batean, eraikuntzakoaren osagarria, sartu ahal izango dira.

e) Arkitektura planoak gutxienez 1/100 eskalara, eraiki beharreko bolumenak eta azalera argi eta zehazki egiaztatzea ahalbidetuko duten aurretiko bista eta sekzio guztiak —bi gutxienez— behar bezala adieraziz. Aurretiko bistek eta sekzioek hirigintzaren behin betiko sestrak eta lerrokadurak islatuko dituzte, eta baita eraikinaren ingurunea ere, eraikuntza proiektuaren osagarri den hiritartzearen garatua, helburu honekin: Eraikina lurzoru hiritarraren lerrokaduratan eta Xehetasuneko Azterketan, Barne Eraberrikuntzako Planean edo dagokion Alorreko Planean, kasuen arabera, egoki txertatzen ote den agertzea eta behin betiko emaitza hori behar adinako zabalasunaz adieraztea.

Halaber, fatxadaren sekzio-xehetasun bat aurkeztuko da, 1:20 eskalara.

Oin guzti-guztiak irudikatu beharko dira, antolaketa elementu bakoitzaren neurriak zehazteko beharrezkoak diren akotazioak eta plano bakoitzean azalera eraikien koadroa adieraziz.

13.2. Los planos del proyecto de edificación o instalación en sí serán perfectamente legibles y constarán como mínimo de:

a) Planos de situación a escala 1:2000 ó 1:1000 en el plano oficial del Ayuntamiento o a escala 1:5000 de la Diputación.

Se indicarán los límites de la parcela y los límites de la edificación en planta baja. Caso de existir Plan Especial, Estudio de Detalle, Plan Parcial aprobado, se presentará también en los correspondientes planos oficiales de dichos expedientes y expresarán en el topográfico base y en el plano de zonificación o uso del suelo.

La existencia de nueva cartografía oficial, más precisa que las anteriores, será condición suficiente para su exigencia en la documentación del proyecto, quedando el municipio obligado a proporcionar dicha documentación a quien lo solicite, previo pago de las tasas que se establezcan.

b) Plano de parcela con el emplazamiento del edificio debidamente acotado en dimensiones y en distancias de parcela, vías, zonas verdes, etc. En cualquier caso, se presentará dicho plano de parcela referenciado a los planos topográficos y parcelarios que sirvieron de base a la realización del Plan Especial, Plan Parcial o Estudio de Detalle correspondiente, con indicación de límites, dimensiones y superficie total de la parcela, así como las distancias del edificio en planta baja y de pisos a linderos, edificaciones próximas y a cualquier elemento urbanístico como vial, zona verde, etc. Escala mínima, 1:250. Este plano estará siempre referido al oficial del Ayuntamiento y tendrá su misma altimetría. A estos efectos, se dibujarán las proyecciones del edificio en todas sus plantas en que sean diferentes, con trazado de línea diferente y especificando la correspondiente a cada planta, acotando tanto el edificio en sí como las distancias a las referencias citadas.

c) Plano de parcela original, parcela o parcelas que se asignarán a la edificación o edificaciones como un todo indivisible y parcela de cesión gratuita al uso y dominio público, con acotado de sus principales dimensiones y cuadro de superficies con indicación del régimen de conservación futura de cada superficie.

d) Planos de planta que representen el saneamiento horizontal, abastecimiento de aguas al edificio y cimentación a escala mínima 1:100, con indicación clara de cuartos de contadores, acometidas, tuberías de desagüe, diámetros, arquetas pendientes, situación de sus empalmes a la red municipal, incluso detalle de fosa séptica a escala 1:25, como mínimo, según la normativa al efecto de los proyectos de urbanización. Estos planos se podrán incluir en un proyecto de urbanización del entorno del edificio, complementario del de edificación.

e) Planos de arquitectura a escala mínima 1:100, con perfecta indicación de todos los alzados y de las secciones, dos como mínimo, que posibiliten, de forma clara y precisa, la comprobación de los volúmenes y superficies a edificar. Los alzados y secciones harán referencia en su dibujo a las rasantes y alineaciones definitivas de la urbanización, al entorno del edificio, desarrollado en el complementario de urbanización del proyecto de edificación, a fin de indicar con la amplitud suficiente el resultado definitivo del encaje del edificio en las alineaciones del suelo urbano y en el Estudio de Detalle, plan de Reforma Interior o Plan Parcial correspondiente, según los casos.

Asimismo, se presentará una sección-detalle de fachada a escala 1:20.

Deberán representarse todas y cada una de las diversas plantas, con las acotaciones precisas para determinar las dimensiones de cada elemento de distribución, indicando en cada plano el cuadro de superficies construidas correspondientes.

Antolaketa plano desberdin bakoitzean azalera eraikiaren koadro bat, araudi honen irizpideen arabera kalkulatu, argi eta garbi agertuko da.

f) Eraikuntza proiektuaren osagarria den hiritartze plano, lorategia eta obra osagarriak ere barne hartuz, 1:250 eskalara, Udalak horretarako ezarritako araudian edo, hau ezean, arau hauetan hiritartze proiekturako ezarritakoan adierazten diren kalitate, diseinu eta aurkezpen baldintza guztiak betez. Plano horiek eraikinen ingurune hiritartze proiektu batean —eraikuntzakoaren osagarria— sartu ahal izango dira.

g) Ur, elektrizitate eta saneamendu zerbitzuen eraikinerako hartune orokorren planoak, gutxienez 1:100 eskalara, eta kontagailu gelaren egoera eta neurriak, saneamendu eta euri uren zorrotzen eta putzu beltzaren eta zerbitzu horietako bakoitzak sare orokorrekin dituen konexioen egoera.

13.3. Aurrekontuak, berariaz eta bereizita, industri mozkin barne hartuko du, eta gauzatze materialaren aurrekontua, industri mozkinaren zenbatekoa eta kontrataren aurrekontua aurkeztu beharko dira. Gutxienez, kapituluka banakatutako sailak, neurketa osoaz eta horiei ezarritako aleko prezioekin, eta obraren garrantzia baloratzea ahalbidetuko duen kapituluaren laburpen bat jasoko ditu. Eraikuntzaren aurrekontutik aparte, hiritartze obra zehatzen gauzatze materialaren eta kontrataren aurrekontu bat gehitu beharko da. Beste orri batzuetan, bereizita, bai proiektuan bai obraren zuzendaritzan profesionalki esku hartu duten teknikari ezberdinen eskumeneko ordainsariak adieraziko dira, aurrekontuei dagokienean.

a) Planoak —bere eskala ezberdinetan— nahiz b) eta c) planoak, zein bere proiektuaren aleetan jasota egoteaz gain, aplikazio informatikoen bidez erraz erreproduzitzeko moduko euskarri batean eman beharko dira, udaleko bulego teknikoak aparte artxiba ditzan.

Udalbatzak hirigintza datuen fitxa bat diseinatu ahal izango du proiektuaren dokumentu honetan eskatzen diren planoen laburpen gisa, ondorio guztietarako.

14. Hala ere, proiektuaren egile den teknikariaren lanbideko arau erregulatuak hala baimentzen dutenean, obretarako lizentzia oinarritzeko edo murriztutako proiektu batez eskatu ahal izango da, hala dagokionean goian aipatutako plano eta dokumentuekin batera, proiektatutako eraikuntzari aplikagarri zaizkion hirigintza xedapenen betekizuna zehazki ezagutu eta justifikatzeko beharrezkoak diren heinean.

15. Behin obretarako lizentzia emanda eta dagokion ebazpenaren jakinarazpenaz geroztik bi hilabeteko epean eta, nolahi ere, obrak hasi aurretik, interesdunak obrak gauzatzeko proiektu osoa aurkeztu beharko du.

16. Obra txiki kasuan, lizentziak honako prozedura honi jarraituz emango dira: Eskararak betekizun orokorrak konplitu beharko ditu. Proiektuak memoria deskribatzaile, plano edo krokis batez ordezkatu ahal izango dira, non garbi zehaztuko baitira eskaeraren xedea, eraikinen neurriak, egoera eta mugak eta, azkenik, aurrekontu orokor bat.

Espedientearen izapidetzea onartu ondoren, udal teknikariak haren txostena egingo dute eta, aurrez dagokion Informazio Batzordearen irizpena emanda, alkate lehendakariak edo honek eskuordetzen duen zinegotziak espedientea zuzenean ebartziko du.

En cada plano de distribución diferente se indicarán, con toda claridad, un cuadro de la superficie construida, calculada según los criterios de la presente normativa.

f) Plano de urbanización complementaria al proyecto de edificación, incluso jardinería y obras auxiliares a escala mínima 1:250, cumpliendo todas las condiciones de calidad y diseño y presentación de la normativa establecida al efecto por el Ayuntamiento o, en su defecto, de la contenida en estas Normas para los Proyectos de Urbanización. Estos planos se podrán incluir en un Proyecto de urbanización del entorno del edificio, complementario del de edificación.

g) Planos a escala mínima 1:100 de las acometidas generales al edificio de los servicios de agua, electricidad y saneamiento, así como situación y dimensiones de su cuarto de contadores, situación de bajantes de saneamiento y pluviales y de la fosa séptica y de las conexiones con las redes generales de cada uno de estos servicios.

13.3. El presupuesto incluirá, expresamente y por separado, el beneficio industrial, debiéndose presentar el presupuesto de ejecución material, el montante del beneficio industrial y el presupuesto de contrata. Constará, como mínimo, de partidas desglosadas por capítulos, con su medición total y precios unitarios aplicados a aquéllas, así como un resumen de capítulos que permita apreciar la importancia de la obra. Se deberá incluir independientemente del presupuesto de la edificación un presupuesto de la ejecución material y de contrata de las obras precisas de urbanización. En hojas aparte, se indicarán los montantes de honorarios facultativos de los diversos técnicos que intervengan profesionalmente, tanto en el proyecto como en la dirección de la obra, referidos a los presupuestos.

Los planos a) en sus diversas escalas, b) y c) deberán entregarse, además de incluidos en los respectivos ejemplares del proyecto, en soporte de fácil reproducción mediante aplicaciones informáticas, a fin de ser archivados independientemente por la Oficina Técnica municipal.

La Corporación podrá diseñar una ficha de datos urbanísticos, como resumen de los planos exigidos en el presente documento del proyecto a todos los efectos.

14. No obstante, en aquellos supuestos en que las normas reguladoras de la profesión del técnico autor del proyecto así lo permitan, podrá solicitarse la licencia de obras acompañada de proyecto básico o reducido, completado, en su caso, por los planos y documentos arriba relacionados, necesarios para conocer con precisión y justificar el cumplimiento de las determinaciones urbanísticas aplicables a la construcción proyectada.

15. Una vez concedida la licencia de obras y dentro de los dos meses siguientes a la notificación de la correspondiente resolución y, en cualquier caso, con anterioridad al inicio de las obras, habrá el interesado de presentar proyecto completo de ejecución de obras.

16. En el supuesto de Obras Menores el otorgamiento de licencias seguirá el siguiente procedimiento: La solicitud habrá de reunir los requisitos generales. Los proyectos podrán sustituirse por una Memoria descriptiva, un plano o croquis en el que vengan claramente especificados, objeto de la solicitud, dimensiones, situación y linderos del inmueble y un presupuesto global.

Una vez admitido a trámite el expediente sea sometido a informe de los técnicos municipales y previo dictamen de la Comisión Informativa que corresponda será resuelto directamente por el Alcalde Presidente o Concejal en quien delegue.

17. Hiritartze obra osagarriak. Legez orubetzat hartzen ez diren lurzoru hiritarrek lurzatiak jabeek, hiritartze proiekturik onartuta ez dagoen jarduketa isolatuaren kasuan, beren lursailei aipatu orube izaera emateko beharrezko diren hiritartze obrak egin ahal izango dituzte.

Hiritartze obra horiek eraikuntzakoekin batera eta aldi berean burutu ahal izango dira, Kudeaketa Erregelamenduak finkatu bezala, edo horien aurretik eta berauekin zerikusirik izan gabe. Lehenengo kasuan, hiritartze obra osagarrien proiektua eraikuntza edo instalazio proiektuekin batera aurkeztuko da, horien eranskin gisa, eta ematen den lizentziak biak barne hartuko ditu. Proiektuan jasotako hiritartze obrak zati batean edo osotara ez gauzatzea, edo horiek modu desegokian gauzatzea, lizentzia iraungitzeko baldintza izango da. Bigarren kasuan, lizentziak obra handi bezala izapidetuko dira.

48. artikulua. Izapide desberdinetarako behar den dokumentazioa.

— I. Eraikuntza berriko obrak edo eraikinak handitzea.

1. Eskari normalizatua.
2. Proiektu teknikoa, dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duena.
3. oinarritzko proiektua aurkeztuz gero, eta behin obretarako lizentzia emanda, jakinarazpena egin eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, eta beti ere obrak hasi aurretik, interesdunak obrak gauzatzeko proiektu osoa aurkeztu beharko du.

4. Obra zuzendaritzarako zerbitzu profesionalen kontratua, gauzatze materialerako zuzendaritza eta segurtasun eta osasuneko koordinatzailea.

5. Segurtasun eta osasunari buruzko azterketa, obra motaren arabera oinarritzko azterketa batez ordezkatu ahal izango dena, 1.627/1997 Errege Dekretuarekin bat etorritz.

6. Bankuko abala, hiritartze obrak burutuko diren eta dagokion kuota ordainduko den berme gisa.

7. Behin-behineko kalifikazioa, babes ofizialeko etxebizitzak badira.

8. Garaje jardueraren lizentzia eskaera, garajerik balego, dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

— II. Eraikinen egituraren eragiten duten aldaketa eta era berrikuntza obrak.

1. Eskari normalizatua.
2. Proiektu teknikoa, teknikari eskudun batek sinatua eta dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duena.
3. Segurtasun eta osasunari buruzko azterketa, obra motaren arabera oinarritzko azterketa batez ordezkatu ahal izango dena, 1.627/1997 Errege Dekretuarekin bat etorritz.
4. Obra zuzendaritzarako zerbitzu profesionalen kontratua, gauzatze materialerako zuzendaritza eta segurtasun eta osasuneko koordinatzailea.

— III. Eraikinen kanpo itxura aldatzea.

1. Eskari normalizatua.
- 2.1. Obren ondorioz fatxadaren eraketa aldatzen bada, bai baoena bai materialena, teknikari eskudun batek sinatu eta dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duen proiektu teknikoa.

17. Obras complementarias de Urbanización. Los propietarios de parcelas en suelo urbano que no tuvieran consideración legal de solar, y en los casos de actuaciones aisladas en que no existiera aprobado Proyecto de Urbanización, podrán realizar las obras de urbanización necesarias para dotar a sus terrenos del indicado carácter de solar.

La ejecución de estas obras de urbanización podrá realizarse conjunta y simultáneamente con las de construcción, en la forma indicada en el Reglamento de Gestión, o con carácter previo e independiente de éstas. En el primer caso, el Proyecto de las Obras complementarias de urbanización se presentará conjuntamente, y como anexo de las de construcción o instalación, y la licencia que se conceda abarcará al conjunto de ambas. La inejecución total o parcial, o la ejecución inadecuada de las obras de urbanización comprendidas en el Proyecto, implicará supuesto para la caducidad de la licencia. En el segundo caso, la licencia se tramitarán como obras mayores.

Artículo 48. Documentación necesaria para las distintas tramitaciones.

— I. Obras de nueva planta o ampliación de edificaciones.

1. Instancia normalizada.
2. Proyecto técnico visado por el Colegio Profesional correspondiente.
3. En el caso de presentación de proyecto básico, y una vez concedida la licencia de obras, dentro de los 3 meses siguientes a su notificación, y siempre antes del inicio de las obras, deberá el interesado presentar proyecto completo de ejecución de obras.

4. Contrato de servicios profesionales de dirección de obra, dirección de ejecución material y coordinador de seguridad y salud.

5. Estudio de seguridad y salud, que en función de la naturaleza de la obra podrá sustituirse por un Estudio Básico de acuerdo con el R. Decreto 1.627/1997.

6. Aval bancario en garantía de la realización de las obras de urbanización y pago de la cuota correspondiente.

7. Calificación provisional si se trata de viviendas de protección oficial.

8. Solicitud de licencia de actividad de garajes, si los hubiere, mediante presentación de la documentación correspondiente.

— II. Obras de modificación o reforma que afectan a la estructura de los edificios.

1. Instancia normalizada.
2. Proyecto técnico suscrito por técnico competente y visado en el Colegio Profesional correspondiente.

3. Estudio de seguridad y salud, que en función de la naturaleza de la obra podrá sustituirse por un Estudio Básico de acuerdo con el R. Decreto 1.627/1997.

4. Contrato de servicios profesionales de dirección de obra, dirección de ejecución material y coordinador de seguridad y salud.

— III. Modificación del aspecto exterior de los edificios.

1. Instancia normalizada.
- 2.1. Cuando las obras supongan modificación de la composición de fachada, tanto de huecos como de materiales, Proyecto Técnico suscrito por técnico competente y visado por el Colegio Profesional correspondiente.

a) Segurtasun eta osasunari buruzko azterketa, obra motaren arabera oinarritzko azterketa batez ordezkatu ahal izango dena, 1.627/1997 Errege Dekretuarekin bat etorritz.

b) Obra zuzendaritzarako zerbitzu profesionalen kontrata, gauzatze materialerako zuzendaritza eta segurtasun eta osasuneko koordinatzailea.

2.2. 2.1 atalean barne hartzen ez diren kasuetan, egin beharreko obren zehaztapen xehea eta obra horien aurrekontua.

3. Jabekideen komunitatearen onespina egiaztatzen duen dokumentua, eta komunitatearen konpromisoa aurrerantzean modu bateratua ariko dela adieraziz.

— IV. Estalkiak konpontzea.

1. Eskari normalizatua.

2. Obrek egituraren eragiten badute, teknikari eskudun batek sinatu eta dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duen proiektu teknikoa.

3. Segurtasun eta osasunari buruzko azterketa, obra motaren arabera oinarritzko azterketa batez ordezkatu ahal izango dena, 1.627/1997 Errege Dekretuarekin bat etorritz.

4. Obra zuzendaritzarako zerbitzu profesionalen kontrata, gauzatze materialerako zuzendaritza eta segurtasun eta osasuneko koordinatzailea.

5. Estalketa materialetan aldaketarik badago, 2, 3 eta 4. ataletan aipatutakoa aurkeztu beharko da.

6. Teilaberritzerako, gapirioren bat aldatzen bada edo teilatu hodi edo zorrotanak ordezkatzan bada ere, nahikoa izango da aurrekontu xehekatu bat aurkeztea.

— V. Eraikinen barne antolamendua aldatzen duten obrak.

1. Eskari normalizatua.

2.1. Obrek antolamenduaren %20an eragiten badute zuzeko egitura duten eraikinetan, eta %50ean gainerakoetan:

a) Proiektu teknikoa, teknikari eskudun batek sinatua eta dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duena.

b) Segurtasun eta osasunari buruzko azterketa, obra motaren arabera oinarritzko azterketa batez ordezkatu ahal izango dena, 1.627/1997 Errege Dekretuarekin bat etorritz.

c) Obra zuzendaritzarako zerbitzu profesionalen kontrata, gauzatze materialerako zuzendaritza eta segurtasun eta osasuneko koordinatzailea.

2.2. Obrek antolamenduaren %20an eragiten badute zuzeko egitura duten eraikinetan eta %50ean gainerakoetan, krokis bat egungo egoera eta egin beharreko aldaketa adieraziz, eta lanen aurrekontu bat.

3. Obrek barne antolamenduan edota eraikinaren egituraren eragiten ez badute, nahikoa izango da egin beharreko obren aurrekontu xehekatu bat.

— VI. Eraikuntzak eraistea.

1. Eskari normalizatua.

2. Teknikari eskudun batek sinatu eta dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duen proiektu teknikoa, Honako dokumentu hauek bildu beharko dituen:

* Eraikuntza sistemaren eta eraisketa egiteko baliatuko den prozedura eta moduaren memoria deskribatzailea.

* Eraisketa burutzerakoan hartu beharreko segurtasun neurriak argi eta garbi zehaztuko dituzten baldintza partikularrak.

a) Estudio de seguridad y salud, que en función de la naturaleza de la obra podrá sustituirse por un Estudio Básico de acuerdo con el R. Decreto 1.627/1997.

b) Contrato de servicios profesionales de dirección de obra, dirección de ejecución material y coordinador de seguridad y salud.

2.2. En los casos no comprendidos en el apartado 2.1, detalle pormenorizado de las obras a realizar y presupuesto de las mismas.

3. Documento acreditativo de la conformidad de la Comunidad de Propietarios, así como el compromiso de ésta de actuar en lo sucesivo uniformemente.

— IV. Arreglo de cubiertas.

1. Instancia normalizada.

2. Si las obras afectan a la estructura, Proyecto técnico suscrito por técnico competente y visado por el Colegio Profesional correspondiente.

3. Estudio de seguridad y salud, que en función de la naturaleza de la obra podrá sustituirse por un Estudio Básico de acuerdo con el R. Decreto 1.627/1997.

4. Contrato de servicios profesionales de dirección de obra, dirección de ejecución material y coordinador de seguridad y salud.

5. Si existe cambio de materiales de cubrición, será necesaria la presentación de lo mencionado en los apartados 2, 3 y 4.

6. Para un retejo, aunque se cambie algún solivo, sustitución de canalones, o bajantes, será suficiente un presupuesto pormenorizado.

— V. Obras que modifiquen la disposición interior de los edificios.

1. Instancia normalizada.

2.1. Si las obras afectan al 20% de la distribución en el caso de edificios con estructura de madera y al 50% en el resto de los casos:

a) Proyecto técnico firmado técnico competente, visado por el Colegio correspondiente.

b) Estudio de seguridad y salud, que en función de la naturaleza de la obra podrá sustituirse por un Estudio Básico de acuerdo con el R. Decreto 1.627/1997.

c) Contrato de servicios profesionales de dirección de obra, dirección de ejecución material y coordinador de seguridad y salud.

2.2. Si las obras afectan a menos del 20% de la distribución en el caso de edificios con estructura de madera y del 50% en el resto de los casos, un croquis indicando la situación actual, la modificación a realizar, y un presupuesto de los trabajos.

3. Si las obras no afectan a la distribución interior ni a la estructura del edificio, bastará un presupuesto pormenorizado de las obras a efectuar.

— VI. Demolición de las construcciones.

1. Instancia normalizada.

2. Proyecto de Obras suscrito por técnico competente y visado en el Colegio Profesional correspondiente, que deberá contener los siguientes documentos:

* Memoria descriptiva del sistema constructivo y del procedimiento y forma en que ha de efectuarse el derribo.

* Pliego de condiciones particulares en que se especifiquen claramente las medidas de seguridad a adoptar durante su ejecución.

* Segurtasun eta osasunari buruzko azterketa, obra motaren arabera oinarritzko azterketa batez ordezkatu ahal izango dena, 1627/1997 Errege Dekretuarekin bat etorritz.

* Kokapen plano, eskuarki 1:2.000 eskalara izango dena, aldamenen eraikinak daudenean izan ezik; kasu horretan, eskala 1:1.000 eskalara handituko da, eta eraisketak aipatu aldameneko eraikinetan izan ditzakeen ondorioak arrazoituko dira.

* Eraikinaren fatxada bakoitzaren argazkia.

3. Zinpeko aitorpena, edozein tituluren arabera eraikinean maizterrak, errentariak eta bizilagunak egoteak eraisketa burutzean eragin litzakeen legezko oztoporik ez dagoela adieraziko duena, zeinaren ebazpena justizia auzitegien eskumenekoa baita.

4. Eraisketa oin berriko eraikuntza baten zati denean, ez da proiektua aparte aurkeztu beharko; beharrezkoa den dokumentazio guztia hiritartze proiektuan sartu ahal izango da atal bereizi batean. Era berean, bestelako betekizun guztiak konplitu beharko dira.

5. Erantzukizun zibileko aseguru polizaren fotokopia; aseguruak aldameneko eraikin edo ondasunen gaineko balizko kalteak estaliko ditu.

6. Obra zuzendaritzarako zerbitzu profesionalen kontratua, gauzatze materialerako zuzendaritza eta segurtasun eta osasuneko koordinatzailea.

— VII. Markesinak, toloak, plakak eta iragarki argidunak ezartzea.

1. Eskari normalizatua.
2. Jarduera lizentziaren fotokopia.
3. Instalazioaren neurriak eta ezaugarriak azalduko dituen krokisa.

4. Erantzukizun zibileko aseguru polizaren fotokopia, aldameneko eraikin edo ondasunen gaineko balizko kalteak estaliko dituen, fatxadaren lerrokaturretatik irteten ez diren etxebizitzetan izan ezik.

5. Eraikineko jabekideen komunitatearen onespina egiaztatzen duen dokumentua.

6. Instalazioaren aurrekontuak.

* VIII. Eraikuntzarako garabiak ezartzea.

1. Eskari normalizatua.
2. Garabiaren kokagunearen plano, biraketa erradioa adieraziz eta biraketa erradioak ukitutako eraikin eta instalazioak seinalatuz.

3. Garabiaren erabilerarako kontratua.

4. Erantzukizun zibileko aseguru, garabiak edo haren erabilerak eragin ditzakeen kalteengatik.

5. Garabiaren funtzionamendu egokiaren ziurtagiria, teknikari eskudun batek emana.

* IX. Eraikin eta instalazioen lehen erabilerarako lizentzia, orokorrean.

1. Eskari normalizatua.
2. Obraren azken egoeraren planoak, aldaketak egon badira.

3. Obra berriaren deklarazio eskrituraren kopia baimendua, bertan xedatuz proiektuan zehazten diren terrazak, balkoiak, orubeak eta pergolak itxi edo estaltzea ezinezkoa dela, eta, hala dagokionean, derrigorrezko lagapeneko lursailen lagapena adieraziz.

* Estudio de seguridad y salud, que en función de la naturaleza de la obra podrá sustituirse por un Estudio Básico de acuerdo con el R. Decreto 1627/1997.

* Plano de situación que, normalmente será a escala 1:2.000, salvo si existieran edificaciones colindantes, en cuyo caso se aumentará la escala 1:1.000, y se justificarán los efectos que el derribo pueda producir en las citadas edificaciones colindantes.

* Fotografía de cada fachada del edificio.

3. Declaración jurada de la inexistencia de obstáculos legales a la ejecución del derribo que pudieran derivarse de la existencia de inquilinos, arrendatarios y ocupantes del edificio, en virtud de cualquier título, y cuya resolución fuera competencia de los Tribunales de Justicia.

4. Cuando el derribo sea parte de una construcción de nueva planta no será necesario presentar proyecto por separado, pudiendo incluirse toda la documentación requerida en el Proyecto de Edificación en un apartado propio, y debiendo, asimismo, cumplirse todos los demás requisitos.

5. Fotocopia de la póliza de seguro de responsabilidad civil, que cubra los posibles daños a edificios o bienes colindantes.

6. Contrato de servicios profesionales de dirección de obra, dirección de ejecución material y coordinador de seguridad y salud.

— VII. Instalación de marquesinas, toldos, placas y anuncios luminosos.

1. Instancia normalizada.
2. Fotocopia de la licencia de actividad.
3. Croquis con indicación de medidas y características de la instalación.

4. Fotocopia de la póliza de seguro de responsabilidad civil, que cubra los posibles daños a edificios o bienes colindantes, excepto en viviendas que no sobresalga de la alineación de la fachada.

5. Documento acreditativo de la conformidad otorgada por la Comunidad de Propietarios del inmueble.

6. Presupuestos de la instalación.

* VIII. Instalación de grúas para la edificación.

1. Instancia normalizada.
2. Plano de ubicación de la grúa indicando el radio de giro, y señalando los edificios e instalaciones afectadas por el radio de giro.

3. Contrato de utilización de la grúa.

4. Seguro de Responsabilidad Civil por daños que pueda ocasionar la grúa o su utilización.

5. Certificado de buen funcionamiento de la grúa, expedido por técnico competente.

* IX. Licencia de primera utilización de edificios e instalaciones en general.

1. Instancia normalizada.
2. Planos del estado final de la obra, en caso de que haya habido modificaciones.

3. Copia autorizada de la escritura de declaración de obra nueva, especificándose en la misma la imposibilidad de cerrar o cubrir posteriormente las terrazas, balcones, solares y pérgolas que en el proyecto se definen y expresando en su caso la cesión de los terrenos de cesión obligatoria.

4. Obra bukatu izanaren ziurtagiria, haren teknikari zuzendariak sinatu eta dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duena.

5. Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta hartu izanaren justifikazioa.

6. Obren azken likidazioa, haren teknikari zuzendariak sinatu eta dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duena.

7. Fatxaden argazkiak, 12 x 17 tamainakoak.

8. Igogailuak erabiltzeko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren baimena.

9. Behin betiko kalifikazioa babes ofizialeko etxebizitzetan.

10. Egindako hiritartze gastuen justifikazioa.

— X. Ingurumenenean eragina duten jarduera ez kaltegarrietarako lokalak irekitzea, otsailaren 27ko 3/1998 Legeari, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena, jarraituz.

1. Eskari normalizatua.

2. Proiektu teknikoa, dagokion Elkargo Profesionalaren oniritzia duena.

3. Jabeen zerrenda, jabeekideen komunitateko presidentearen izena adieraziz.

4. Higiene eta osasun baldintzak betetzearen ziurtagiria, jarduera ez kaltegarrietarako Osasuneko Buru Lokalak luzatua. Osakidetza Osasun Txostena.

5. Obra bukaeraren ziurtagiria, espedientearen tramitazioan ezarritako neurri zuzentzaileak gauzatu direla azalduz eta horien likidazioa aurkeztuz, teknikari zuzendariaren Elkargo Profesionalaren oniritzia jaso duena.

6. Segurtasun ziurtagiria, arkitekto edo aparejadore batek esku hartu ez duten obretan.

7. Urteko Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren fotokopia.

8. Sailkatutako jardueren buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena, aipatu jarduera egoitza erabilerako lurzoru hiritartzean kokaturik dagoenean, eta Eusko Jaurlaritzarena lurzoru hiritartzean edo industriako hiritartzean kokaturik dagoenean.

— XI. Lursailen lurzatiketa edo bananketarako lizentzia.

1. Eskari normalizatua.

2. Lursailaren kokapen plano, 1:5.000 eskalara.

3. Lursailaren plano, 1:2.000 eskalara.

4. Lurzatiketa egin ondorengo plano, 1:2.000 eskalara.

5. Lurzatitu nahi den lursailaren jabetza titulua.

6. Bananketarako eskritura publikoaren kontua, ondoriozko lurzatiketa jasoko duena.

7. Lurzorua hiritartzean bada, banandutako lursailik gabe utsiapena bideragarria dela egiaztatzen duen Foru Aldundiko organo eskudunaren aldeko txostena.

— XII. Lurzorua okupatzeko lizentzia.

1. Eskari normalizatua.

2. Lursailaren kokapen plano, 1/500 eskalara.

3. Lursailaren plano 1/200 eskalara, okupatu beharreko azalera adieraziz.

4. Certificado de terminación de la obra, firmado por los técnicos directores de la misma y visado por el Colegio correspondiente.

5. Justificación de haberse dado de alta en el Impuesto de Actividades.

6. Liquidación final de las obras, suscrito por la Dirección de la obra y visado por el Colegio Profesional correspondiente.

7. Fotografías tamaño 12 x 17 de las fachadas.

8. Autorización de la Consejería de Industria para el uso de ascensores.

9. Calificación definitiva en viviendas de protección oficial.

10. Justificación de los gastos de urbanización realizados.

— X. Apertura de locales para actividades inocuas y con incidencia en el Medio Ambiente, Ley 3/1998, 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

1. Instancia normalizada.

2. Proyecto técnico visado por el Colegio Profesional correspondiente.

3. Relación de propietarios con indicación del que ostenta la presidencia de la Comunidad de Propietarios.

4. Certificado de reunir las condiciones higiénico-sanitarias emitido por el Jefe local de Sanidad para actividades inocuas. Informe Sanitario de Osakidetza.

5. Certificado final de la obra haciendo constar que se han ejecutado las medidas correctoras impuestas en la tramitación del expediente y liquidación de las mismas, visado en el Colegio Oficial del Técnico Director.

6. Certificado de Seguridad en las obras que no hayan intervenido un Arquitecto o un Aparejador.

7. Fotocopia del Impuesto de Actividades del año en curso.

8. Autorización de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa para actividades clasificadas, cuando esta se ubique en suelo urbano residencial, y del Gobierno Vasco cuando su localización sea sobre suelo no urbanizable o urbano industrial.

— XI. Licencia de parcelación o segregación de terrenos.

1. Instancia normalizada.

2. Plano de situación del terreno a escala 1:5.000.

3. Plano del terreno a escala 1:2000.

4. Plano con la parcelación efectuada a escala 1:2000.

5. Título de propiedad del terreno que se pretende parcelar.

6. Minuta de escritura pública de segregación donde se recoja la parcelación resultante.

7. Informe favorable del órgano competente de la Diputación Foral de la viabilidad de la propia explotación actual al prescindir de los terrenos segregados, en el caso del suelo no urbanizable.

— XII. Licencia de ocupación del suelo.

1. Instancia normalizada.

2. Plano de situación del terreno a escala 1/500.

3. Plano del terreno a escala 1/200 con indicación de la superficie a ocupar.

4. Pertsona edo ibilgailuen zirkulazioaren desbideraketari buruzko proposamen grafikoa, beharrezkoa balitz.

49. artikulua. Lurketarako lizentzia.

Debekatuta daude lurketak, udal lizentziak babestutako beste jardueren baten baitan izan ezean.

IV. ATALA. Lizentzien titularrak, eskualdaketak, ondorioak eta iraungipena

50. artikulua. Lizentziaren titularra.

Lizentziaren titulartzat hartuko da bere kabuz edo beste batek ordezkaturik berau eskatu duena. Lizentziaren titularrak hura gauzatu ahal izango du, eta gauzatze hori bertan finkatutako baldintzetara egokitzearen erantzulea izango da, eta baita tasak edo zergak ordaintzearena ere.

Eskatzailea ordezkari gisa ari bada, hori egiaztatu egin behar du; bestela lizentziaren titulartzat hartua izango da, ondorio guztietarako eta ordezkatzeko duenarekin batera.

51. artikulua. Lizentzien eskualdaketa.

1. Hiritartze lizentziak eskualdagarriak izango dira, salbu eta xedea, jardueraren izaera edo hura proiektatzen den ondasunen izaeragatik hiritartze hori pertsonaltzat hartzen bada, eta lagapenerako akordioan hori berariaz jaso behar du.

2. Lizentziaren eskualdaketa Administrazioari jakinarazi behar du jatorrizko titularrak eta eskuratzaileak sinatutako idatzian, eta bertan lizentzia hori identifikatzeko funtsezko datuak jasoko dira. Udalari aurrez jakinarazi ezean, lizentziaren eskualdaketak ez du Administrazioaren aurrean inolako ondorio eragingo. Kasu horretan, bai eskualdatzailea bai eskuratzailea lizentziaren ondoriozko erantzukizunei lotuta geratuko dira.

3. Irekitze lizentzia baten titularitate aldaketa eskatzeko, honakoa aurkeztu behar du:

— Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta hartu izanaren egiaztatzea.

— Lokalaren alokairu kontratua edo erosketa eskritura.

— Irekitze lizentzia.

— Lizentziaren eskualdaketakarako dokumentazioa.

52. artikulua. Lizentzien ondorioak.

1. Hiritartze lizentziak baimendutako jarduerak eskaerak adierazitakoari, azaldutako baldintzei, polizia baldintza orokorreari eta Udalak, dituen eskuduntzen eta indararen dagoen araudiaren arabera, jakinarazten dituznei hertsiki lotuz burutuko dira.

2. Jadanik emanda dagoen lizentziak baimendutako jardueren aldaketarik egin nahi denean, Udalari jakinaraziko zaio, eta hark dagokion idatzia udaleko zerbitzu teknikoei emango die; betekizun hori nahikoa izango da aldaketa xehetasunekoak bada.

3. Jardueren sartu nahi den aldaketa garrantzizkoa bada, lizentzia berria eskatu behar du, eta hura oro har ezarritako prozedurari jarraituz izapidetu eta emango da.

4. Propuesta gráfica de desvío del tráfico de personas o vehículos si fuese necesario.

Artículo 49. Licencia de Movimientos de Tierras.

Quedan prohibidos los movimientos de tierra salvo que fueran parte integrante de otra actividad amparada, a su vez, por licencia municipal.

SECCION IV. Titulares, transmisiones, efectos y caducidad de las licencias

Artículo 50. Titular de la Licencia.

Se considerará titular de la licencia a quien por sí o representando la hubiera solicitado. El titular de la licencia podrá ejecutarla y será responsable de que tal ejercicio se adecue a las condiciones establecidas en la misma, así como al pago de tasas o impuestos.

En el caso de que el solicitante actúe en representación deberá acreditar tal particular, en otro caso, será conceptuado como titular de la licencia, a todos los efectos, en forma solidaria con el representado.

Artículo 51. Transmisión de las Licencias.

1. Las licencias urbanísticas serán transmisibles, excepto en los casos en que, por su finalidad, por la naturaleza de la actividad, o por la naturaleza de los bienes sobre la que la misma se proyecta, tenga la consideración de personal, lo que se hará constar expresamente en el acuerdo de concesión.

2. La transmisión de licencia deberá ser puesta en conocimiento de la Administración en escrito firmado por el titular originario y el adquirente, y en la que se hará constar los datos fundamentales de identificación de la licencia de que se trate. No producirá efecto alguno ante la Administración la transmisión de licencia sin la comunicación previa al Ayuntamiento. En tal caso, quedarán solidariamente sujetos a las responsabilidades derivadas de la licencia tanto el transmitente como el adquirente.

3. Para solicitar el cambio de titularidad de una licencia de apertura se presentará:

— Alta en el impuesto de actividades económicas.

— Contrato de arrendamiento o Escritura de compra del local.

— Licencia de apertura.

— Documentación de transmisión de ésta.

Artículo 52. Efectos de las Licencias.

1. Las actividades autorizadas por la licencia urbanística, se realizarán con estricta sujeción a los términos de su petición, a las condiciones expuestas, a las generales de policía y a las que se comuniquen por la Alcaldía durante el curso de las mismas, de acuerdo con sus atribuciones y con la normativa vigente.

2. Cuando se quiera introducir alguna modificación en la actividad autorizada por la licencia ya concedida, se dará conocimiento de ello a la Alcaldía, quien pasará el escrito correspondiente a los servicios técnicos municipales con cuyo requisito bastará para otorgar la autorización, si se trata de una modificación de detalle.

3. Si la alteración que pretende introducirse en la actividad fuere de importancia habrá de solicitarse nueva licencia, que se tramitará y concederá conforme al procedimiento establecido con carácter general.

53. artikulua. Lizentzien iraungipena.

1. Lizentziak iraungiko dira:

a) Obrak datorren idazpuruan finkatzen diren epeetan hasi ez izanagatik; hasiera Zuzendaritza Teknikoak luzatu eta dago-kion Elkargo Profesionalaren oniritzia jasotako obra hasieraren ziurtagiria aurkeztuz egiaztatu beharko da.

b) Obrak edo ezarri beharreko jarduerak datorren idazpu-ruan finkatzen diren epeetan bukatu ez izanagatik.

c) Baimendutako obrak edo jarduerak hasi ondoren, horiek sei hilabetez geldirik egoteagatik. Baimendutako obrak edo jarduerak gelditutzat joko dira noizbehinkako lanak edo dagoeneko egindakoen osagarri direnak —alegia lizentzia iraungi baino lehen jarduera amaitzeko adinako intentsitatez egiten ez direnak— burutu arren, aurreko atalean aipatutakoen arabera.

d) Baimendutako merkataritza edo industri jarduera gelditu eta dagokion lokala sei hilabete baino gehiagoz itxita ego-teagatik.

e) Baimenean azaldutako baldintzak urratzeagatik.

f) Eskatzaileak uko egiteagatik, Alkatetzari zuzendutako idatzi baten bidez.

2. Aurreko arauak aipagai dituzten epeak honako hauek izango dira:

Emandako obra lizentzia orok, orokorrean, eta arau hauetan epe murriztagoa zehaztu ezean, sei hilabete epea izango du lanak hasteko, eta hogeita lau hilabete epea lanak amaitzeko nahiz lehen erabilera edo okupaziorako udal lizentzia lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa Udaleko Erregistro Oroko-rraen aurkezteko.

Obra txikien kasuan, obra lizentziak hiru hilabete epea izango du lanak hasteko, eta sei hilabete epea lanak amaitzeko nahiz erabilera aldaketarako lizentzia, lehen erabilerarako udal lizentzia, irekitze lizentzia eta abar lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa Udaleko Erregistro Orokorrean aurkezteko.

3. Aurreko zenbakian aurreikusitako edozein epe gaindi-tzeak eraikitze eskubidearen iraungipena ekarriko du; iraun-gipena izapidetutako espedienteen formalki deklaratu beharko da, interesdunari entzun ondoren.

4. Behin eraikitze eskubidea iraungi ondoren, interes-dunak ez du lizentziaren babesean obrarik hasi edo jarraitzerik izango, Administrazioaren aurretiazko baimena edo agindua izan ezean, eta pertsona zein ondasunen segurtasuna eta buru-tutako eraikuntzaren balioa bermatzeko behar beharrezkoa ez bada.

5. Lizentziaren iraunaldia interesdunak aurrez hala eska-tuta bakarrik luzatu ahal izango da; horretarako, aipatu interes-duna udal bulegoetara bertaratu da, lizentzia iraungi aurretik eta behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

Luzapenak, gehienez, baimendutako jarduera bukatzeko beharrezkotzat jotzen den denbora baino ez du hartuko, dagoe-neko eginda dagoen zatia kontuan izanik.

Inola ere ez da luzapen bat baino gehiago ematerik izango.

54. artikulua. Aparteko gastuak.

Obra lizentzia orok, dagokion eskubideen ordainketa alde batera utzita, zerbitzu publikoko edozein instalazio lekualdatu beharrak edo obrek bide publikoan eragin ditzaketen kalteen konponketak eragin ditzaketen gastuak ordaintzeko titularraren konpromisoa dakar berekin, hori berariaz jasota ez egonda ere.

Artículo 53. Caducidad de las Licencias.

1. Las licencias caducarán:

a) Por no haber empezado las obras en los plazos que se indican en el epígrafe siguiente, circunstancia que ha de acreditarse mediante la presentación de la certificación de comienzo de obras expedida por la Dirección Técnica y visada por el Colegio profesional correspondiente.

b) Por no haber concluido las obras o actividades a implantar en los plazos que se indican en el epígrafe siguiente.

c) Por quedar paralizadas las obras o actividades autoriza-das por término de seis meses después de su iniciación. Se con-siderarán paralizadas las obras o actividades autorizadas, aun-que se efectúen trabajos esporádicos o complementarios de los ya realizados, entendiéndose por tales aquéllos que no supongan una reanudación de la actividad con intensidad suficiente para concluir la dentro del término que reste de validez a la licencia, conforme a los señalados en el apartado anterior.

d) Por quedar paralizada la actividad mercantil o indus-trial autorizada y cerrado el correspondiente local por término superior a seis meses.

e) Por haber infringido las condiciones expuestas en la autorización.

f) Por desistimiento del solicitante en escrito dirigido a la Alcaldía.

2. Los plazos a que hacen referencia las normas anteriores serán los siguientes:

